



**AGINDUA, JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN  
SAILBURUARENA, EUSKAL AUTONOMIA  
ERKIDEGOKO JUSTIZIA  
ERRESTAURATIBOAREN LEGE-  
AURREPROIEKTUA ALDEZ AURRETIK  
ONARTZEN DUENA.**

Justizia eta Giza Eskubideen sailburuaren 2025eko azaroaren 11ko Aginduaren bidez, hasiera eman zitzaion Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Errestauratiboaren Lege-aurreproiektua egiteko prozedurari.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak 12. artikuluan xedatzen denez, «*xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da*».

Lege horren 15. artikuluan ezarritakoaren arabera, «*xedapen orokorren proiektuak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak aldez aurreko onarpena eman beharko dio dena delako testu artikulatuari, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsultazapideak egin aurretik*».

Adierazitakoaren ondorioz, honako hau

**EBAZTEN DUT:**

**Lehenengoa.**– Aldez aurretik onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Errestauratiboaren Legearen - aurreproiektua.

**Bigarrena.**– Lege - aurreproiektuaren prozedura izapidetzen jarraitzeko agintzea, Hasteko Aginduan eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezarritako izapideekin bat etorritik, Lege - aurreproiektua onartzeko ondorioetarako.

**ORDEN DE LA CONSEJERA DE JUSTICIA Y  
DERECHOS HUMANOS, POR LA QUE SE  
APRUEBA CON CARÁCTER PREVIO EL  
ANTEPROYECTO DE LEY DE JUSTICIA  
RESTAURATIVA DEL PAÍS VASCO.**

Mediante la Orden de 11 de noviembre de 2025, de la consejera de Justicia y Derechos Humanos, se inició el procedimiento de elaboración del Anteproyecto de Ley de Justicia Restaurativa del País Vasco.

La Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento del Elaboración de Disposiciones de Carácter General dispone, en su artículo 12, que «*el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general se iniciará por Orden de la persona titular del Departamento competente por razón de la materia sobre la que versen*».

De conformidad con lo establecido en el artículo 15 de dicha Ley «*una vez redactados los proyectos de disposiciones de carácter general, antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan, el texto articulado correspondiente deberá contar con la aprobación previa acordada por el órgano que haya dictado la orden de inicio*».

En virtud de lo anteriormente expuesto,

**RESUELVO:**

**Primero.**– Aprobar con carácter previo el Anteproyecto de Ley de Justicia Restaurativa del País Vasco.

**Segundo.**– Ordenar la continuación de la tramitación del procedimiento del Anteproyecto de Ley, de conformidad con los trámites establecidos en la Orden de Inicio y en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento del Elaboración de Disposiciones de Carácter General, a los efectos de la aprobación del Anteproyecto de Ley.

Justizia eta Giza Eskubideen sailburua  
La consejera de Justicia y Derechos Humanos  
**MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ**

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 - VITORIA-GASTEIZ



# EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JUSTIZIA ERRESTAURATIBOAREN LEGE - AURREPROIEKTUA

## Zioen azalpena

### I

Zuzenbideko Estatu sozial eta demokratiko batean, Justizia ordenamendu juridikoaren balio nagusietako bat da, Espainiako Konstituzioaren 1.1. artikulua arabera.

Justizia bezalako balio nagusi horretatik funtsezko printzipioak sortzen dira; hala nola, Konstituzioko 9.3 artikuluan aurreikusten diren legezatasun printzipioa, arauen arteko hierarkia, arauen publizitatea, aldekoak ez diren edo norbanakoen eskubideak murrizten dituzten xedapen zehatzaileen atzeraeraginik eza, segurtasun juridikoa, erantzukizuna eta botere publikoen arbitrariotasunaren debekua. Printzipio horiek, era berean, eskubide subjektiboak aitortzen dizkiete botere publikoen prestazio-betebeharrak betetzen dituzten pertsoneri, eskubide horiek asetzeko.

Konstituzioaren 117. artikuluan ezarritako eskumen- eta prozedura-arauen arabera, prozesua edozein dela ere, legeek zehaztutako Epaitegi eta Euzitegiei dagokie jurisdikzio-ahala, epaituz eta epaitutakoa betearaziz. Eskubide horiek egikaritzeko, Botere Judizialak pertsonen eskubideak eta interesak eraginkortasunez babestea ahalbidetzen duten bitartekoak eta tresnak behar ditu.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 34. artikulua Espainiako Konstituzioaren 152. artikuluan xedatutakoa garatzen du. Artikulu horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio jurisdikzio-ahala zigor-prozeduraren fase guztietan erabiltzeko giza baliabideak eta baliabide materialak eskaintzea, zigorra betetzea barne. Eskumen horren barruan sartzen da baliabide, zerbitzu, tresna eta laguntza-neurri guztiak Auzitegien esku jartzea, benetako babes judiziala ahalik eta baldintzarik onenetan gauzatu ahal izateko. Horien artean, funtsezkoa da jurisdikziorako sarbidea bermatzeko behar diren baliabideak antolatzea, Estatuko legerian aurreikusitako baldintzetan.

### II

Justizia errestauratiboa Europar Batasunaren barruan arautu da, eta horren isla garrantzitsuena eta berriena Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko urriaren 25eko 2012/29/EB Zuzentaraua da, delituen biktimen eskubideei, laguntzari eta babesari buruzko gutxieneko arauak ezartzen dituena. Zuzentarau horren transposizioa Delituaren Biktimaren Estatutuaren apirilaren 27ko 4/2015 Legearen bidez egin zen. Estatuko arau horrek, lehen aldiz, biktimei Justizia errestauratiboko zerbitzuak eskuratzeko eskubidea aitortzen die, zerbitzu horien existentziari buruzko informazio esplizitua jasotzen du eta prozesuaren parametroetan berme guztiekin txertatuko den justizia-eredu bat ezartzeko bildu behar diren elementuak zehazten ditu.

Europako Kontseiluaren esparruan, beharrezkoa da aipatzea justizia errestituratio penalaren arloan Ministroen Batzordeak estatu kideei egindako CM/Rec(2018)8 Gomendio garrantzitsua. Lehenengo artikuluan, estatu kideak justizia errestituratioa egin eta aplikatzea animatzen ditu, betiere zigor-arloko sistema judizialak errespetatuz, baita zigor-arloko prozeduraren testuinguruan justizia errestituratioa aplikatzeko arauak sustatzea eta parte-hartzaileen eskubideak babesten saiatzea ere. Halaber, agintari judizialak eta justizia errestituratioako eta zigor-arloko justiziako erakundeak zigor-arloko prozesutik kanpo gera daitezkeen eredu errestituratioak garatzera animatzen ditu. Era berean, zehatz-mehatz adierazten du gomendioa justizia penalaren eremuan lan egiten duten eta justizia errestituratioako kasuak eramaten edo igortzen dituzten erakunde publiko edo pribatu guztiei zuzenduta dagoela, edo, bestela, justizia errestituratioa erabiltzen edo egiten duten lanean horren printzipioak aplikatzen dituzten erakundeei.

Gomendio hori oinarri hartzen du 2021eko abenduaren 14ko Veneziako Adierazpenak, zeinak justizia errestituratioako prozesuen abantailak azpimarratzen baititu, bereziki aipatuz prozesu horien borondatezko izaera eta prozesu horiek eteteko edo edozein unetan geldiarazteko aukera. Gainera, prozesuaren ikuspegia kalte materialak eta immaterialak konpontzean, borondatezkotasunean, parte-hartzean, konfidentzialtasunean, arau-hausleen gizarteratzean eta bitartekarien edo bideratzaileen inpartzialtasunean datzala berresten du.

Berriki, justizia errestituratioa Prozedura Kriminalaren Legean arautu da, Justiziaren Zerbitzu Publikoaren efizientziaren arloko neurriei buruzko urtarrilaren 2ko 1/2025 Lege Organikoak sartutako bederatzigarren xedapen gehigarriaren bidez. Estatuko arau prozesal batek, lehen aldiz, aurrez aipatutako arauetan jasotako printzipio eta bermeekin batera, esparru prozesala arautzen du, justizia errestituratioa zigor-arloko prozeduran sar dadin.

Estatuko araudi hori indarrean jartzea mugarri garrantzitsua da justizia errestituratioarentzat. Estatuak Europako Kontseiluaren Gomendioak sustatzen duen bultzada jasotzen du, eta Delituaren Biktimaren Estatutuaren apirilaren 27ko 4/2015 Legean aitortutako justizia errestituratioarako eskubidearen eraginkortasunean eta garapenean aurrera egiten du horrela.

Delituaren Biktimaren Estatutuaren apirilaren 27ko 4/2015 Legea indarrean jarri eta hamar urtera, justizia errestituratioarako eskubidea benetan baliatzeko aukera ematen duen, eta funtsezkoa eta prozesala den Estatuko erregulazio bat dago orain. Horrela, parte hartzen duten eragile publikoei ziurtasuna eta konfiantza ematen dien gune erregulatuak sortu da.

Europar Batasunak eta Europako Kontseiluak xedatutakoaren ildotik, justizia errestituratioa ez da autokonposizio-metodo erraztu bat, justizia-eredu bat baizik. Justizia-eredu bat izateak, aukera ematen du, komunikazio-prozesuen bidez, delitu bat egitean inplikaturako pertsonen premiak – arreta berezia jarrita biktimei eragindako kaltearen erreparazio integralean – eta komunitatearen funtsezko interesak babesten dituzten legeak indartzeko gizarte-eskakizunekin integratzeko. Hori egile ezagunekin preskribatu gabeko arau-hauste penalak direnean egin daiteke, aurkako-justizia sistemaren jarraibideen arabera diseinatutako prozeduraren barruan; eta, egile ezagunik

gabeko arau-hauste penalei dagokienez, edo, egile ezagun bat egonik, zigor-arloko prozedurarik onartzen ez dutenei dagokienez, prozeduragarritasun-betekizunik ez dagoelako edo erantzukizun kriminala azkentzeko kausa bat dagoelako, zigor-arloko prozeduratik kanpo.

Arauketa desberdina da, hainbat xede eta helburu baititu, baita justizia errestitatiboa beste bitarteko intrajudizial edo estrajudizial batzuetatik bereizten duelako ere, alderdi publikoaren – zigor-arauaren indarraldia berresteko eskakizunei lotua – eta komunitate-alderdiaren – bizikidetzak baketsu eta inklusiborako funtsezko interesak babesteari lotua – bitartez.

### III

Euskal Autonomia Erkidegoak, bere eskumenak baliatuz, Estatuko legerian diseinatutako justizia errestitatiboa sendotzen laguntzen du. Berdintasun-, segurtasun- eta konfiantza-baldintzetan eskuratzea bermatu nahi du. Balioa eman nahi zaio, eta eskura dituen bitartekoak aitortu eta eskaini, estatuko eta nazioarteko arauetan aurreikusitako eta aitortutako justizia errestitatiboaren helburuak ahalik eta modurik eraginkorrean gauzatu ahal izateko.

Geroz eta digitalagoa, ez hain presentziala eta teknologikoki modernoagoa den justizian beharrezkoa da konexio-, topaketa-, entzute- eta komunikazio-espazioak ere zaintzea, aldi berean bakarrak eta desberdinak diren pertsona bakoitzaren sentimenduei eta premiei lekua utzi ahal izateko.

Justizia errestitatiboak espazio hori eskaintzen dio borondatez eta askatasunez bertan sartu eta mantendu nahi duenari. Entzuteko, bestearekin komunikatzeko, zurekin eta zuretzat esku hartzen duen profesionalarekin eta zeure buruarekin komunikatzeko gunea da, profesionalen laguntzarekin zure premiak aurkitzeko eta, premia horietatik abiatuta, egindako kaltea aitortzeko, ahalik eta gehien erreparatzeko eta kaltearen eragileak erantzukizuna bere gain hartzeko bidea bilatzeko. Horrela, birgizarteratzen lagundu ahal izango da, baita urratutako arauaren indarraldia berrezarri ere.

Duela hamarkada bat baino gehiagotik, Euskadik justizia errestitatiboari buruzko ikerketa, azterketa eta foro nazional eta nazioartekoetan parte hartzea babestu du, justizia errestitatiboan sakondu, ikertu eta berau aplikatu duten profesional bikainen zerrenda bat sortuz.

Gainera, esperientzia dugu. Ez gara hutsetik abiatzen. 2007. urteaz geroztik, zigor-arloko bitartekaritza egin da; eta 2018az geroztik, justizia errestitatiboa. Horretarako, justizia errestitatiboko zerbitzu publikoa eratu da, beste zerbitzu publiko batzuekin batera; hala nola, biktimari arreta emateko zerbitzua eta zigorrak kudeatzeko euskal zerbitzua. Zerbitzu publiko horiek biktimei arreta integrala emateko, eta delitu bat egiteagatik ikertutako, epaitutako edo kondenatutako pertsoneri arreta emateko ikuspegia eskaintzen dute.

Justizia errestitatiboa 2022-2025 aldirako Justizia Errestitatiboaren Euskal Estrategian zehaztutako helburu bat izan da. Estrategia horretan zenbait ardatz garrantzitsu jasotzen dira: justizia errestitatiborako sarbidea bermatza; justizia

errestauratiboko zerbitzuak egokitzea; pixkanaka justizia errestituratiboko zerbitzu edo programa berrien eskuragarritasuna bultzatzea; justizia errestituratiboko profesionalen gaikuntzari buruzko informazioa emateko eta horretan laguntzeko organo judizialekin, fiskalekin eta justiziarekiko lankidetzaz-zerbitzuekin, polizia-kidegoekin, gazte-justiziako zerbitzuekin eta espetxe-administrazioarekin lankidetzan aritzea; justizia errestituratiboaz espetxe-administrazioan zeharka txertatzea eta eremu horretan programa espezifikoak garatzea; justizia errestituratiboan parte hartzen duten pertsonak laguntza eta informazioa izango dutela bermatzea, edozein esku-hartzeren aurretik, bitartean eta ondoren; Justizia Zerbitzuak biktimari laguntzeko egiten duen orientazio-lana sustatzea justizia errestituratiboko zerbitzuetan, baita zerbitzu horiei ematen zaien laguntzan ere, eta justizia errestituratiboaren kalitatean, ezagutzan eta konfiantzan lan egitea, baita kultura-aldaketan ere, herritarren, erakunde-arduradunen eta komunikabideen arteko dibulgazioaren bidez, justizia errestituratiboaren esanahiaren oinarritzko ezagutza bermatzeko. Urrats bat gehiago eman eta aurrera egiteko unea da. Europako Kontseiluaren Gomendioan jasotakoaren ildotik, plan estrategikoen esparrua gaitditzeko eta justizia errestituratiboaren aldeko apustu irmoa, irekia, gardena eta arduratsua egiteko unea da. Euskadik finkatze horretan lagundu behar du, hura aitortuz eta operadore juridiko guztiek, erakundeek eta herritarrek hari buruz izan dezaketan ezagutza babestuz. Dagoena azaldu behar da; izan ere, kontaktan ez dena ez da existitzen, eta agerian jartzen denak balio handiagoa hartzen du.

Justizia errestituratiboaren eredu propioa eskaintzeko unea da, justizia-eredu gizatiarragoa gehitu eta integratuko duena.

Horretarako, uste dugu Familia Bitartekaritzari buruzko otsailaren 8ko 1/2008 Legearekin egin zen bezala, Euskadik beste urrats bat eman behar duela eta arau-esparru batean aitortu behar duela Euskadin justizia errestituratiboarekin garatzen ari den errealtatea, hori gauzatzeko baliabideak eta zerbitzuak eskaini eta arautu behar dituela, eta justizia errestituratiboak dakarren kultura-eraldaketa zabaltzen lagundu behar duela.

#### IV

Helburu hori betetzeko, egokitza jotzen da lege hau, zeinak hainbat xede dituen:

- Aurkako-justizia sistemarekin sintonia bat lortzeko oinarriak ezartzea, ordeztua baino, aberastua izateko, entzuteko eta erreparazioa emateko beharrak bilatzeko gune horretara iristeko, aurkako-justizia beti ezin baita horretara iritsi. Zigor-sistema abian jarri ezin denean jarduteko printzipioak ezartzeko, edo jarri ondoren zigor-erantzukizuna azkendu delako bertan behera utzi behar denean. Orduan ireki dezake justizia errestituratiboak bere bidea, bidegabekeria-sentsazioa, erantzunik eza edo erantzun judizialik eza dakarren espazio huts eta ilun hori estaltzeko.
- Justizia errestituratiboaz ezagutzera ematea, zein eremutan gertatzen den aitortzea, helburuak zehaztea, sarbidea berdintasun-baldintzetan eskaintzea, ezagutza, kontzientziatioa eta hedapena sustatzea. Kalitate-bermea eskaintzea, esku-hartzaile bakoitzaren erabakitzeko eta jarduteko espazioa babesteko, eta pertsonengandik, pertsonentzat eta pertsonekin justizia egiteko euskal ereduaren onena eskaintzeko.

- Justizia Errestauratiboaren Euskal Eredua definitzea, zerk osatzen duen eta zein filosofia duen zehaztea, Euskadin egin daitezkeen prozesu eta praktika errestauratiboak ikuspegi bera oinarri hartuta egiteko.
- Prozesu eta praktika errestauratiboak gauzatzeko bitartekoak eta tresnak arautzea; hala nola, justiziarekiko eta erakunde publiko eta pribatuekiko lankidetzaz-zerbitzu publikoak, zeinak, ikuspegi beretik, justizia errestauratiboarekin lankidetzan aritzen baitira.
- Pertsona bakoitzaren premien arabera, aniztasuna eta malgutasuna errespetatzea erreparazio indibidualizatuagoa lortzeko bidea eskaintzea ahalbidetzen duen balio gisa, pertsona horiek justizia errestauratiboaren benetako protagonistak baitira. Justizia errestauratiboa gerta daitekeen eremu guztietara egokitzeko ere bai. Administrazio publikoa garen aldetik, gure erantzukizuna da bide hori eskaintzea.
- Ereduari koherentzia ematea. Euskadin gauzatzen diren prozedura eta praktika errestauratiboak helburuek duten koherentzia kontuan hartuta egitea, kalitate-bermeekin, zerbitzu, erakunde eta instituzio guztien lankidetzaren, koordinazioaren, elkarlanaren eta parte-hartze aktibo eta konprometituen bidez, baliabideen optimizazio handiagoa lortuz eta konfiantza-, segurtasun- eta kalitate-espazio bat bermatuz.

## V

Legeak 31 artikulua ditu, bost kapitulutan egituratuta, xedapen gehigarri bat, hiru xedapen iragankor eta azken xedapen bat.

Lehenengo kapituluak xedapen orokorrak jasotzen ditu eta, horietan, legearen xedea, Justizia Errestauratiboaren Euskal Eredua definizioa, aplikazio-eremua, borondatez-kotasunaren, konfidentzialtasunaren eta ofizialtasunaren printzipio gidariak, prestazio publiko, doako eta unibertsalerako oinarriak, zerbitzu publikoak osatzen dituzten langileen osaera, kualifikazioa eta prestakuntza, eta praktika errestauratiboak egiten dituzten erakunde publiko edo pribatuetako langileei eska dakiekeen ezagutza jasotzen dira. Halaber, bideratzaileek jarduketa inpartzial eta objektibo bat bermatzeko abstenitu beharko duten kasuak artikulatzen dira. Parte ez hartzeko arrazoiekin batera, egon daitezkeen arau-hauste administratiboak ere arautzen dira, baita gardentasuna, instrukzioaren eta zehapenaren funtzioen bereizketa artean eta, batez ere, bideratzailearen parte-hartze egokia bermatuko dituen prozedura ere.

Justizia Errestauratiboaren Euskal Eredua integrazioaren ondoriozko eredua da. Legean jasotzen diren bermeak oinarri hartuta gauzatzen diren erreparazio-prozedurekin eta -jardunbideekin osatzen da, bai zigor-arloko prozesuan garatzen direnean, bai zigor-arloko prozesutik kanpo garatzen direnean ere. Prozedura eta praktika errestauratibo guztiek malgutasuna dute pertsona bakoitzaren beharretara eta egoerara egokitzeko behar diren teknikak garatzeko, baina guztiek filosofia komun bati erantzun behar diote (erreparazioa eta erantzukizuna hartzea), baita berme komun batzuei ere (prestakuntza, kualifikazioa, gainbegiratzea, ebaluazioa). Sistema koherente bat osatu behar dute, eta koordinatuta jardun behar dute beharrezkoa denean. Hori guztia bermatzeko, Eusko Jaurlaritzak eta, zehazki, justizia arloan eskumena duen sailak lege honetan aurreikusitako xede eta helburuak betetzen direla zaindu behar du, biktimaren, kaltea eragin duen pertsonaren eta komunitatearen zerbitzura.

Bigarren kapituluan, Justizia Errestauratiboaren Euskal Sistema eta zerbitzuen eta justizia arloan eskumena duen sailaren arteko koordinazio-mekanismoak arautzen dira.

Justizia Errestauratiboaren Euskal Sistema justiziarrekiko lankidetzaz-zerbitzu guztiek osatzen dute (legean definitzen dira zerbitzu horiek), eta berrikuntza gisa sartzen da guztiek ikuspegi errestitutiboa partekatzen dutela eta aintzatespenera eta erreparaziora bideratuta daudela.

Legean definitutako zerbitzuak, gaur egun dauden hirurak dira: biktimei arretea emateko zerbitzua, justizia errestitutiboko zerbitzua, eta zigorrak eta neurri alternatiboak kudeatzeko zerbitzua (baita ikertuari arretea emateko zerbitzua ere). Azken hori sortzearekin batera, modu indibidualizatuan pertsona guztiei arretea integrala ematen zaiela bermatzen da, ez haien premiei erantzunez soilik, baita haien egoera prozesal eta pertsonalari erantzunez ere.

Nahiz eta zerbitzu bakoitzak bere funtzio eta zeregin espezifikoak bete, guztiek begirada errestitutiboa partekatzeak erreparazioa, aintzatespena eta erantzukizuna lortu beharreko helburu gisa jomugan izatea dakar. Begirada horri esker, zerbitzu bakoitzetik programa errestitutiboak gauzatu ahal izango dira, hargatik eragotzi gabe justizia errestitutiboko zerbitzuarekin behar bezalako koordinazioa egitea, programa horiek biktimen eta ikertuen/ kondenatuen partaidetza bateratua dakartenean.

Justizia Errestauratiboaren Euskal Sistemarekin batera, koordinazio-taldea eratzen da, justizia errestitutiboaren arloko politika publikoko helburuak prozesu eta praktika errestitutiboak egiten dituzten zerbitzu eta erakundeei helarazteko, Justizia Errestauratiboaren Euskal Ereduaren helburuak betetzeko, baliabideak optimizatzeko eta sistemari koherentzia emateko.

Hirugarren kapitulua justizia errestitutiboari buruzkoa da, aurkako-justiziaren osagarria denean. Kapitulu horretan zein hurrengoan, Europako Kontseiluaren Gomendioan erabilitako terminologia erabiltzen da justizia errestitutibo osagarria aipatzeko, zigor-prozesuarekin paraleloan doanean eta beronekin integratzen denean, baita justizia errestitutiboa, alternatiba gisa, zigor-prozesurik gabe gertatzen denean.

Gure eskumenez jabetuta, Estatuak zigor-arloko prozesuan justizia errestitutiboaren integrazioa arautzeko duen eskumen eskusiboa nabarmentzen da. Horregatik, konstituzio-eskakizunak erabat errespetatuz, berriaz aipatzen da indarrean dagoen estatu-araua, inolako erreferentziarik, berritasunik, erregulazio prozesalik edo funtsezkorik sartu gabe. Justizia errestitutiboaren eta aurkako-justizia penalaren arteko artikulazioa Estatuak arauak ezartzen duten moduan egingo da.

Hala ere, ez diogu uko egiten berriaz aipatzeari, argitasuna ematea ahalbidetzen duela uste baitugu. Legean sartzea beharrezkoa da hura ikusarazteko, justizia errestitutiborako sarbidea zigor-arloko prozesu batean ere gertatzen dela, eta gure zerbitzuek, kasu horietan ere, entzun, artatu eta erreparazioa eskainiko dutela ezagutzera emateko, epaitegi edo auzitegi batek, bere eskumenen esparruan eta Estatuak arauaren arabera, hala ezartzen badu.

Ikusaraztea, aitortzeko. Zigor-arloko prozesuan justizia errestitutiboa eskaintzeko aukera aitortzea, bai helduen justizian, bai gazteen justizian, baita zigorra betetzen den bitartean ere. Une horretan, kaltearen erantzukizuna hartzeko eta kaltea konpontzeko

programak ezar daitezke, zigorra betetzea bermatzeko, erreparaziora eta gizarteratzera bideratuta.

Laugarren kapituluak, zigor-prozesuaren ordezkotako praktika errestituatiboak jasotzen dira. Zigor-arloko prozesurik ez egoteak ez du esan nahi balizko konponketari atea itxi behar zaionik. Izan ere, justizia errestituatiborako eskubidea biktima guztiena da, eta gure betebeharra da biktima guztiei entzuteko eta erreparatzeko espazioak eskaintzea. Justizia errestituatiboak, erreparazioari dagokionez, zigor-prozesuak eman ezin duen espazioa bete dezake.

Bi kasuetan, justizia errestituatiboak osagarri edo alternatiba gisa funtzionatzen du, espazio bat eskaintzen baitie entzuteari, emozioei, sentitzeari eta gertaerek pertsonen bizi-bilakaeran izan duten eragin espezifikoiari.

Bosgarren kapituluak Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen dituen konpromisoak ezartzen ditu, justizia errestituatibo eraginkorra bermatzeko eta eskubideen aitortza formaltasun hutsa ez izateko. Eusko Jaurlaritzak kualifikazioa, prestakuntza, ikuskerapena, ebaluazioa, parte-hartze plurala (Justizia Errestituatiboaren Euskal Foroaren bidez), prestakuntzari egindako ekarpena, pedagogia, hedapena eta kontzientziatzea bermatzen ditu.

Azkenik, legea amaitzeko, erregelamendu bidez garatzeko konpromisoa, bideratzaileen erregistroa sortzea, aurrekontua izatea eta indarrean jartzea arautzen duten xedapenak daude.

Azken batean, lege honen helburua giza duintasuna aitortzen laguntzea da, dimentsio juridiko eta etikoan. Duintasunarekiko konpromisoan, Justiziak errekonozimendua, arreta eta erreparazio osoa ahalbidetzen duten modu eta eredu guztiak ulertu behar ditu. Eta bide horretan, justizia errestituatiboa gure kulturaren eta gure justiziaren zati gisa sartu behar da, eta botere publikoek eskura dituzten bitarteko guztiekin erantzun behar dute erreparazio eraginkor eta errealeko bide bat eskaintzeko, non alderdiak beren erreparazioaren protagonista izango diren.

## I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

### **1. artikulua.** *Legearen xedea.*

Lege honen xedea Justizia Errestituatiboaren Euskal Eredua definitzea da; haren prestazio publiko, doako eta unibertsala bermatzeko oinarriak ezartzea; hori gauzatzeko zerbitzuak arautzea eta kalitatezko justizia errestituatiboko zerbitzu publikoa ematea sustatzeko bermeak eta konpromisoak xedatzea.

### **2. artikulua.** *Justizia Errestituatiboaren Euskal Eredua definitzea.*

1. Justizia Errestauratiboaren Euskal Eredua zuzeneko biktima, zeharkako biktimei eta komunitateari berari legez kontrako egitate batek eragindako kaltea konpontzera bideratuta dago, baita egitate horien eragileen erantzukizuna lortzera ere, prozedura eta praktika errestauratiboetan parte hartuz.

2. Justizia Errestauratiboaren Euskal Eredua lege honetan aurreikusitako helburuen, printzipioen eta kalitate-bermeen arabera garatzen diren prozedura eta praktika errestauratiboek osatzen dute.

3. Justizia Errestauratiboaren Euskal Ereduak, Estatuko legeria prozesalean aurreikusitako moduan, zigor-arloko prozesuan integratutako prozedura errestauratiboak biltzen ditu, baita praktika errestauratibo alternatiboak ere, baldin eta zigor-prozesua ezin bada hasi, garatu edo amaitu prozedura-baldintza bat ez betetzeagatik, egile ezagunik ez egoteagatik edo erantzukizun penala azkentzea dakarren oztopo prozesal bat egoteagatik.

4. Prozedura eta praktika errestauratiboak Justizierekiko Lankidetzaren Zerbitzuek eta justizia arloan eskumena duen sailaren erakunde laguntzaile publiko edo pribatuek egingo dituzte.

### **3. artikulua.** *Aplikazio-eremua.*

1. Lege hau Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen diren prozedura eta praktika errestauratiboak aplikatuko zaie.

2. Justizia errestauratiboko prozeduretan eta praktiketan parte hartu ahal izango dute, haien administrazio-egoera edozein dela ere:

- a) Delitu-egitate batek zuzenean eragindako biktimak.
- b) Delitu-egitate batengatik salatutako, ikertutako, auzipetutako, akusatutako edo kondenatutako pertsonak.
- c) Delituak zeharka eragiten dien pertsonak; hala nola, senideak, hurbilekoak eta komunitateko kideak.
- d) Erakunde publikoak, interes orokorreari eragiten dieten delituetan.

3. Lege honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira indarrean dagoen legeriak berariaz debekatutako kasuak.

4. Justizia errestauratiboko prozedurak eta praktikak honela garatu ahal izango dira:

- a) Zigor-arloko prozesuaren instrukzio-, epaitze- edo betearazpen-faseetan.
- b) Prozedurarako baldintzaren bat bete ez delako zigor-arloko prozesua hasi gabe dagoenean..
- c) Erantzukizun kriminala azkenduta dagoenean.

### **4. artikulua.** *Printzipio gidariak.*

1. Justizia Errestauratiboaren Euskal Eredua publikoa, doakoa eta unibertsal da. Eusko Jaurlaritzak, justizia arloan eskumena duen sailaren bitartez, behar duten pertsona guztien eskura jarriko ditu behar diren bitartekoak eta laguntza-neurriak, pertsona horiek

berdintasun-baldintzetan Justizia Errestauratiboaren Euskal Eredura sarbidea izatea bermatzeko.

2. Prozedura eta praktika errestauratiboetan parte hartzeko, printzipio hauek hartuko dira oinarri: borondatez jardutea, konfidentzialtasuna, irisgarritasuna, ekitatea, segurtasuna eta inpartzialtasuna.

a) Borondatez jardutea: Prozedura eta praktika errestauratiboetan parte hartzea librea eta borondatezkoa izango da. Alderdiei eta inplikaturako edozein pertsonari, ados daudela esan aurretik, argi eta garbi jakinaraziko zaizkie beren eskubideak, proposaturako prozeduraren edo praktikaren izaera, eta haren mende jartzeko erabakiak izan ditzakeen ondorioak. Adostasuna edozein unetan baliogabetu daiteke. Alderdiek justizia errestauratiboko prozedura bati uko egiteak edo hasitakoa bertan behera uzteak ez du inolako ondoriorik izango.

b) Konfidentzialtasuna: justizia errestauratiboko prozeduratik lortzen den informazioaren konfidentzialtasuna bermatuko da. Hitzarmenaren esparruan emandako informazioa ezin izango da geroago erabili, ez bada eragindako alderdiek berariaz hala erabaki dutela edo legezko betebeharren dagoela.

c) Irisgarritasuna: pertsona guztiak, haien egoera eta baldintzak edozein direla ere, berdintasun-baldintzetan errestaurazio-prozedura eta -praktiketara sar daitezten behar diren neurriak hartuko dira.

d) Ekitatea: prozedura eta praktika errestauratiboak berdintasunean garatuko dira, eta aukera emango zaie parte-hartzaileei entzunak izateko eta beren beharrak adierazteko eta helarazteko.

e) Segurtasuna: Errestaurazio-prozeduretan eta -praktiketan parte hartzeak ez du ekarriko inolako arrisku fisiko edo psikikorik biktimaren edo gainerako parte-hartzaileen segurtasunari bergira, eta haren garapenak ezingo dio biktimari kalte material edo moral berririk eragin.

f) Inpartzialtasuna: bideratzaileek inpartzialtasunez jardungo dute, alderdien eskubideak errespetatzen direla zainduz.

## **5. artikulua.** *Prozedura eta praktika errestauratiboak egiten dituzten langileen kualifikazioa.*

1. Justiziarekiko lankidetzaz-zerbitzuetako teknikariek, baita prozedura eta praktika errestauratiboak egiten dituzten erakunde laguntzaile publiko edo pribatuetako langileek ere, betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Gizarte Lana, Psikologia, Zuzenbidea, Kriminologia edo Gizarte Hezkuntza bezalako unibertsitate-gradua izatea edota horiei lotutako goi-mailako heziketa-zikloetako tituluduna izatea, edo, bestela, beste edozein goi-mailako heziketa-ziklo edo unibertsitate-gradutakoa, prestakuntzaren edukiagatik horiekin parekatzen bada.

b) Justizia errestauratiboari, giza eskubideei, biktimekiko esku-hartzeari, justizia-sistemari eta genero-ikuspegiari buruzko ezagutzak egiaztatzea.

2. Lege honen 12.1 artikuluko a) atalean aurreikusitako Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuko teknikariek eta biktimen eta ikertuen/kondenatuen partaidetza bateratuari buruzko prozedura edo praktika errestituratioak egiten dituzten pertsonak, aurreko atalean xedatutakoaz gain, justizia errestituratioan bideratzaile izateko prestakuntza homologatua izan beharko dute.

3. Prozedura eta praktika errestituratioak garatzen dituzten taldeak diziplina anitzekoak izango dira. Talde horiek lankidetzan jardungo dute, ezagutzak, metodologia eta prozedurak bateratuz, ekite integratzailea lortzeko.

#### **6. artikulua.** *Justizia errestituratioan bideratzaile gisa jarduteko prestakuntza.*

1. Aurreko artikuluan aipatzen den prestakuntza homologatua prozedura eta praktika errestituratioetan bideratze-, laguntza-, koordinazio- edo gainbegiratze-funtzioak betetzeko beharrezkoak diren ezagutza teoriko eta praktikoen multzoa da.

2. Homologazioa lortzeko, prestakuntza-ekintzek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Unibertsitateek, elkargo profesionalek, ikastetxe publikoek edo ikastetxe pribatuek emanak izatea. Azken kasu horretan, justizia arloan eskumena duen sailak egiaztatu beharko ditu.

b) Gutxienez 200 ordu teoriko-praktiko izatea.

c) Gutxienez honako prestakuntza-bloke hauek sartzea: justizia errestituratioaren oinarriak, printzipioak eta helburuak; giza eskubideak; genero-ikuspegia eta kultura arteko ikuspegia prozedura errestituratioetan; indarkeriarik gabeko komunikazioa; gatazkaren eta erraztearen kudeaketa positiboa; prozedura eta praktika errestituratioen diseinua; garapena eta ebaluazioa; aplikatu beharreko zigor-, espetxe- eta komunitate-esparru juridikoa; eta biktimizekiko, kaltegileekiko eta komunitatearekiko esku-hartzea.

3. Etengabeko prestakuntza ezinbesteko baldintza izango da akreditazio profesionala berritzeko. Horretarako, justizia errestituratioarekin lotutako prestakuntza osagarriaren 100 ordu egiaztatu beharko dituzte gutxienez bideratzaileek, bost urtean behin.

4. Justizia arloan eskumena duen sailak egiaztatuko ditu aurreko ataletan ezarritako baldintzak.

5. Erregelamendu bidez garatuko dira prestakuntzaren kalitatea ebaluatu, gainbegiratu eta kontrolatzeko irizpideak, baita prestakuntza hori aitortzeko eta ezeztatzeko prozedura ere.

#### **7. artikulua.** *Bideratzaileen abstentzio-arrazoiak.*

1. Artikulu honetan aurreikusitako baldintzaren bat betetzen duten bideratzaileek ezin izango dute esku hartu prozedura eta jardunbide errestituratioetan. Kasu horietakoren batean egonez gero, justizia arloan eskumena duen sailari jakinarazi beharko diote, koordinazio-taldeko arduradunaren bidez, eta hark ebatziko du pertsona bideratzaileak prozedura edo praktika errestituratioan zein esku-hartze maila izango duen.

2. Abstentzio-arrazoi dira:

a) Prozeduraren edo praktika errestauratiboaren xede den gaien interes pertsonala izatea, edota prozeduran zuzenean edo zeharka eragina izan dezakeen beste edozein gaitan.

b) Laugarren mailarainoko odol-ahaidetasuna edo ezkontza-ahaidetasuna izatea prozedura edo praktika errestauratiboan parte hartzen duen alderdietako batekin.

c) Aurreko ataletan aipatutako pertsonetakoren batekin adiskidetasun mina edo areriotasun nabarmena izatea.

e) Prozedura edo praktika errestauratiboan parte hartzen duten alderdiekin zerbitzu-harremana izatea edo prozedura edo praktika errestauratiboa hasi aurreko bi urteetan edozein motatako eta edozein egoera edo tokitako zerbitzu profesionalak eman izana. Salbuespena izango da bideratzaile gisa zerbitzuak eman izana.

3. Aurreko paragrafoan aurreikusitako baldintzetako bat betetzen bada eta bideratzaileak izendapenari uko egiten ez badio, alderdietako edozeinek, prozeduraren edo praktika errestauratiboaren edozein unetan, izendapena errekusatu ahal izango du idazki arrazoitu baten bidez, errekusazioaren arrazoia adierazita. Justizia Errestauratiboaren Euskal Sistemaren koordinazio-taldeko arduradunak ebatziko du errekusazioa, bideratzaileari entzun ondoren.

#### **8. artikulua.** *Bideratzailearen administrazio-erantzukizuna.*

1. Bideratzaileak artikuluan honetan aurreikusitako ekintzak edo ez-egiteak arau-hauste administratiboak dira.

2. Artikulu honetan ezarritako arau-hauste administratiboek ez diete kalterik egingo egileek izan ditzaketen erantzukizun zibil, penal edo bestelakoei.

3. Zehapen-prozedura izapidetzeko eta ebazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, hasiera-datatik zenbatzen hasita. Epe hori igarotakoan, prozedura iraungi egingo da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako moduan eta baldintzetan.

4. Arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

a) Arau-hauste arina da lege honetan aurreikusitakoaren arabera eskatzen den nahitaezko etengabeko prestakuntza ez betetzea.

b) Arau-hauste larria da bideratzaile gisa parte hartzea abstentzio-kausa bat denean.

c) Arau-hauste oso larria da eginkizunak betetzean borondatez jardutearen printzipioa, informazio-printzipioa, inpartzialtasun-printzipioa eta konfidentzialtasun-printzipioak ez betetzea.

5. Aurreko paragrafoan aurreikusitako arau-hausteek honako zehapen hauek ezartzea eragingo dute:

a) Arau-hauste arinen kasuan, lege honetan aurreikusitako nahitaezko etengabeko prestakuntzako ikastaroa egitea eta, ondorioz, hura egin arte aldi baterako etetea.

b) Arau-hauste larrien kasuan, bideratzaile gisa jarduteko hiru hilabeteko etetea.

c) Arau-hauste oso larrien kasuan, edozein prozedura edo praktika errestitatibotan bideratzaile gisa jarduteko sei hilabeteko etetea.

#### **9. artikulua.** *Zehapen-prozedura.*

1. Arau-hauste bat egin dela dakien edozein pertsona partikular edo profesionalak justizia arloan eskumena duen sailari jakinaraziko dio idazki arrazoitu baten bidez. Komunikazioa Justizia Errestitatiboaren Euskal Sistemaren koordinazio-taldeari bidaliko zaio.

2. Balizko arau-haustearen berri izan ondoren, koordinazio-taldeko arduradunak, ebazpen arrazoituaren bidez, zehapen-espeditentea hastea erabaki ahal izango du, baldin eta deskribatutako egitateak arau-hauste administratiboa izan daitezkeela uste badu. Deskribatutako egitateak arau-hauste administratibo ez direla uste badu, administrazio-prozedura ez hastea erabakiko du ebazpen arrazoitu bidez.

3. Espeditentea hasteko ebazpen arrazoituan, salatutako egitateak egiaztatzeko egokitzat jotzen dituen eginbideak gauzatzea erabaki ahal izango da. Ebazpen hori bideratzaileari jakinaraziko zaio, eta hark egiaztapenaren edozein unetan esku hartu ahal izango du, espeditentea hasteari edo erabakitako eginbideei buruzko alegazioak egiteko, baita egokitzat jotzen dituen eginbideak eskatzeko ere.

4. Ofizios edo bideratzaileak eskatuta erabakitako egiaztapen-eginbideen ondoren, Justizia Errestitatiboaren Euskal Sistemaren koordinazio-taldearen arduradunak artxibatzeke ebazpen arrazoitua emango du, zehapen-prozedurarekin jarraitzeke inguruabarrik ez dagoela irizten badio. Bestela, zehapena ebazteke proposamena egingo du.

5. Zehapen-proposamena bideratzaileari jakinaraziko zaio, hamar eguneko epean alegazioak egin ditzan. Epe hori igarotakoan, justizia arloan eskumena duen saileko titularrari helaraziko zaio espeditentea, eta hark egokitzat jotzen duena ebatziko du. Bi kasuetan, prozedurari amaiera ematen dion ebazpena espeditentearen xede den bideratzaileari jakinaraziko zaio.

6. Aldi baterako etete-zehapena ezartzen bada, zehapen-ebazpena jakinaraziko zaio Justizia Errestitatiboaren Euskal Sistemaren arduradunari, Bideratzaileen Euskal Erregistroan idatzoharra egin dezan, eta betetzeko aldia adieraziko da.

7. Bideratzaileari egin beharreke komunikazio eta jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa horretarako gaitutako sistemaren bidez, administrazio elektronikoa arautzen duen araudiarekin bat etorritz.

## **II. KAPITULUA. JUSTIZIA ERRESTAURATIBOAREN EUSKAL SISTEMA**

#### **10. artikulua.** *Deskribapena.*

1. Justizia Errestitatiboaren Euskal Eredua modu integral eta koordinatuan ezartzeko, Justizia Errestitatiboaren Euskal Sistema sortzen da, justiziarekin lankidetzan aritzen diren zerbitzu publiko guztiek osatua.

2. Justizia Errestauratiboaren Euskal Sistemak helburu hauek betetzen ditu:

- a) Justizia osatzen duen eta berarekin lankidetzan aritzen den zerbitzu bakoitzak bere helburuak eta eginkizunak bete ditzan ahalbidetzea.
- b) Orientazio komun errestauratiboa eta ikuspegi komunitarioa bermatzea, delitu-egitate batean inplikaturako eta eragindako pertsonen arreta integrala emateko.
- c) Justizia osatzen duten zerbitzu publiko kolaboratiboen espezializazioa, erlazioa, jarraitutasuna, koherentzia eta eraginkortasuna zaintzea.
- d) Lege honen printzipioak, bermeak eta helburuak sustatzeko eta betetzen direla zaintzeko koordinazio, ordezkartza eta lankidetzaren instituzionalen eginkizunak betetzea.

#### **11. artikulua.** *Koordinazio-taldea.*

1. Justizia Errestauratiboaren Euskal Eredua koordinatzeko talde bat eratzen da, eredu horren helburuak betetzeko, arlo errestauratiboko politika publikoak bete eta kohesionatzeko, eta prozedura edo praktika errestauratiboak garatzen dituzten lankidetzaren zerbitzu publiko guztiekin eta erakunde publiko edo pribatu guztiekin koordinatzea ahalbidetzeko.

2. Lantaldea, gutxienez, koordinatzaile arduradun batek osatuko du, eta Justizia Errestauratiboaren Sistema osatzen duen zerbitzu bakoitzeko pertsona bat, Justizia arloko pertsona bat eta, hala badagokio, Giza Eskubideen arloko pertsona bat ere batu ahal izango dira.

3. Taldearen prestakuntza diziplina anitzekoa izan daiteke, baita lan-kontratudun langile kualifikatuekin integratu ere, eginkizunak betetzeko komenigarritzat jotzen bada.

4. Taldeko pertsonen justizia errestauratiboaren arloko prestakuntza izan beharko dute. Koordinatzaileak, gainera, justizia-sistema instituzionalaren funtzionamenduari buruzko ezagutzak izan beharko ditu.

5. Koordinatzailearen eta, hala badagokio, koordinazio-taldea osatuko duten langileen izendapena justizia arloan eskumena duen sailburuaren agindu bidez egingo da.

#### **12. artikulua.** *Justizia Errestauratiboaren Euskal Sistemaren zerbitzuak.*

1. Justizia Errestauratiboaren Euskal Sistema zerbitzu hauek osatzen dute:

- a) Biktimari Arreta Integrala Emateko Zerbitzua.
- b) Ikertuari Arreta Integrala Emateko Zerbitzua.
- c) Justizia Errestauratiboaren Zerbitzua.
- d) Zigorrek eta Neurri Alternatiboak Kudeatzeko Zerbitzua.

2. Zerbitzu bakoitzak bere helburuak eta eginkizunak beteko ditu, eta autonomia osoz antolatuko da. Koordinazio teknikoko, gainbegiratze profesionaleko, administrazio-laguntzako eta esku-hartze espezializatuetarako profil espezifikotako figurak izango ditu.

3. Zerbitzuen koordinatzaileek, dagokien zerbitzua koordinatzeko eskumenez eta gaitasunaz gain, justizia errestitatiboan eta justiziaren sistema instituzionalaren funtzionamenduan prestakuntza, ezagutzak eta esperientzia izango dituzte.

### **13. artikulua.** *Biktimari Arreta Integrala Emateko Zerbitzua.*

1. Biktimari Arreta Integrala Emateko Zerbitzua delituen zuzeneko eta zeharkako biktimei arreta, laguntza eta orientazioa emateko zerbitzu espezializatua da.

2. Biktimari Arreta Integrala Emateko Zerbitzuak laguntza psikosoziala, juridikoa eta errestitatiboa eskaintzen ditu, baita premien ebaluazioa eta biktimen erreparaziorako jarduketak ere. Era berean, biktimentzako programa errestitatiboak diseinatu eta garatu ahal izango ditu, legez kontrako egitateen ondorioak konpontzeko.

3. Prozesu errestitatiboak zuzeneko edo zeharkako biktimen eta ikertu, auzipetu, akusatu edo kondenatuen baterako parte-hartzea dakarrenean, Justizia Errestitatiboaren Zerbitzuarekin koordinatuko da.

### **14. artikulua.** *Ikertuari Arreta Integrala Emateko Zerbitzua.*

1. Ikertuari Arreta Integrala Emateko Zerbitzua zigor-arloko prozesu baten esparruan delitu bat egiteagatik ikertutako, auzipetutako edo akusatutako pertsoneri laguntza, arreta eta asistentzia ematen dien espezializatutako zerbitzua da.

2. Ikertuari Arreta Integrala Emateko Zerbitzuak laguntza juridikoa, soziala eta psikologikoa eskaintzen du ikuspegi errestitatiboa oinarri duela, eta egindakoaren eta eragindako kaltearen erantzukizuna hartzea sustatzen du.

3. Erantzukizuna erator dezaketen funtsezko egitateak aitortu diren kasuetan, Arreta Integraleko Zerbitzuak ikertuari, auzipetuari edo akusatuari jakinarazi ahal izango dio egindakoarenerantzukizuna hartzea eta eragindako kaltea konpontzea sustatzen duten programak daudela.

### **15. artikulua.** *Justizia Errestitatiboaren Zerbitzua.*

1. Justizia Errestitatiboaren Zerbitzua zerbitzu espezializatu bat da, eta prozedura errestitatiboak koordinatzen eta horietan esku hartzen du. Esku-hartze hori biktimekin eta ikertuekin/kondenatuekin zigor arloko prozesuetan aktiboki eta batera parte hartuta egiten da, askatasunaz gabetzeko zigor eta neurriak betetzeko prozedura errestitatiboak eta askatasunaz gabetzeko zigor eta neurrien betearazpenen eteteak barne.

2. Justizia Errestitatiboaren Zerbitzuak jardunbide errestitatiboak diseinatu eta koordinatu ahal izango ditu, baita jardunbide horietan esku hartu ere, biktimen eta biktimario subrogatuen parte-hartze aktiboarekin eta 2.3 artikuluan aurreikusitako kasuetan zigor-arloko prozesurik ez dagoenean.

